SAN CARLOSEKO GOTORLEKU HISTORIKO KOLONIALAREN BIRGAITZEA

Ikaslea: Josu Vega Etxeberria
Tutorea: Koldobika Telleria Andueza
Gradu Amaierako Lana









(Irudi 1) Espainiar kolonizatzaileak San Juan ibaira heldu eta aukera paregabe bat bezala ikusten dute ur bidez aurrera egiteko.

(Irudi 2) San Carloseko hiria gotorlekuarekin jaiotzen da. Espainiarren boterepean gehienbat, ingelesen, piraten eta indigenenerasoak gainditu beharko zituen gehienbat. (XVI - XVII)

(Irudi 3) San Juan ibaiaren dragatze proiektu asko egon ziren Hauetako gutxi batzuk hasi eta ezta bat ere ez zen amaitua. Hala ere aukera zegoen ibaia eta lakua zeharkatzea: "Ruta de tránsito" .



(Irudi 4) San Carlos hiriaren hazkuntza etengabea izan da, XX. mendean jada gotorleku osoa inguratuko baitu. Hoken jarratuko du 80. hamarkadan handipen nabari bat jasaten duen arte. Gaur egun ere auzo berriak eraikitzen jarraitzen dira, hiriaren hazkuntza garrantzitsua izango dela espero delakoan.

José Coronel Urtecho, Nikaraguan egon den poetarik ospetsuena, bere herriaren inguruan horrela hitz egin zuen:

"eskualde bat, gainera ahaztua, erlijio ezezaguna, inkongnitaz betea baina aukera paregabeak eskeini ditzakeena, ametsez betetako lurra baina agian benetan baino aukera gehiago dituela uste duena, orain arte finantziazio ahulez espekulatzeko balio izan duena."

Nikaraguaren historiari begiratzen badiogu garrantzi handiko herrialde bat izan beharko zuelakoaren itsura hartzen du, konkistatzaileek lehenengo bertan lehenengo pausua eman zutenetik behin eta berriz herrialde mailako ekonomia planak izan dituen gunea dugulako, gutziak oso arrakastatsuak izago zirelakoan eta, batez ere, gai baten inguruan ibili direnak: bi itsasoak (Karibe Itsasoa eta Ozeano Barea) lotzearen ideia. Panama-ko kanala ireki baino lehenago jada hitz egiten zen Nikaraguako kanalaren inguruan eta horren froga dira aurkitu izan diren kanalaren planoak, 1823.urtean Manuel Antonio Cerdak egin zuena edo 1888-an Panamakoarekin batera Alemaniarrek egindako plana, beste batzuen artean. Arrazoi batengatik edo bestearengatik (finantziazio falta, teknika falta, ...) ikusi da ezinezkoa izan dela honen eraikuntza aurrera eramatea. Ziurrenik hau egina balego, kapitalaren munduak irabazitako beste guda bat izango luke eta ekonomia garapen totala, lanpostuen sorrera ikaragarria, Panamako kanalaren aurkako konpetentzia eta honen monopolioaren suntsipena. Estatu Batuenganako interes eta babes internazionala, monetaren balorareen handipena, hormigoia eta altzainua, ertamerikako lakurik handienaren suntsipena, etxeorratzak San Juan ibaiaren eta lakuaren inguruan, kutsadura maila izugarri handiak, natura eremu oso murriztuak, flora eta fauna espezie askoren desagerpena, eta abar handi baten ezenatoki izango litzateke gaur egun Nikaragua. Guk mundu horren inguruan asko dakigu (baliabide naturalen esplotazioaren inguruan) eta eskertu dezakegu hau egin ez izana, gaur egun Nikaragua bezalako eszenatoki naturalak beharrezkoak direlako munduan.



Nikaraguako historia eta mito guztiak, modu batean edo bestean, bat egiten dute San Juan ibaiarekin. Caribe itsasoaren eta itsaso gezaren arteko konexioa egiteko konkistatzaileek izandako abenturak, ostean ibaiari esker Europarekin egindako komertzio bideak, Espainiar inperioa bitan banantzen zuen gunea kontrolatzeko hasiera batean pirata eta ostean britaniarrekin egondako gataxkak, bi ozeanoak lotzeko kanala egiteko aukera geografikoa, XIX.mendean urrearen sukarrarengatik Estatu Batuetako bi kostak lotzeko bide ikaragarri ona izateagatik ekarritako mugimendua, ostean izandako baso heze tipiko baten garapen bitxia eta gaur egun ere kanalaren eraikuntzan insistitzen duten proiektuek izugarrizko garapen historiko bat ematen diote eskualde honi, nahiz eta ezezaguna izan Nikaraguarrentzako ere.

XVI mende erdialdean San Juan ibaiak Granada, Nombre de Dios eta Cadizen arteko komertzio bidean erabat beharrezkoa izango den elementu bat dugu. Ur horietan zehar anil, kotxinila, zilar, azukre eta larruz betetako fragatak igarotzen ziten, 120 tonakoak izareta heldu ahal iziren eta ez bakarrik Nikaraguar produkzioakoak, izan ere, El Salvador eta Hondurasetik ekarritako merkantzia ere hemendik igarotzen zen. Garai batean lurrikara batzuen eraginez ibaiaren azpiko geruza garaitu egiten da baina horrek ez zuen pirata, kortsario ezta itsaslapurrentzat eragozpen bat suposatu, gunean zuen garrantzia dela eta. Hauen arteko liskarrengatik albzatu zen Garbiñe Sorkunde gotorlekua (Castillo de la Inmaculada Concepción) El Castillo-n (1675). Hau izan zen hainbat liskar eta gudateen eszenatoki, Rafaela Herrerak 1762ean egindako akzio heroikoa edo Heraclio Nelson britaniarrak 1780ean arrakastarik gabe inbaditzen saiatu zenean. Defentsarako puntu estrategiko honetaz gain beste bat aurkitzen zen San Carlos herrian, Cocibolca lakuaren sarrera defendatzen zuena eta El Castilliloko gotorlekua igarotzekotan bigarren eresistentzia puntu bat bezala jokatzen zuena. Bi gotorleku hauek, nola ez, estrategiko hoberenak ziren kokapenetan aurkitzen ziren, San Juan ibaiaren eta Cocibolca lakuaren bistak hoberenak ziren tokietan, alegia eta horregatik leku hauen balore historikoa oso handia da. Hala ere, aipatu beharrekoa da Rio San Juan ibaiak beste 12 gotorleku zeuzkala, San Carlosekoa edo El Castillokoa baino garrantzi gutxiagorekin betiere, baina ibai honen kontrola izatearen garrantziaren eredu da. Gotorleku guztiek aldaketa asko jasan dituzte gudate konstanteengatik, errefortzuak, birgaitzeak, suntsiketak, setioak, hala nola ugazaba aldaketak konstanteak zirelako. Rio San Juan ibaiaren boterean zegoena "mundu berria" kontrola zezakeen.















San Carloseko gotorlekuak izan zuen itxura zehazki jakitea ezinezkoa da. Hala ere, jakida gutxieneko ezaugarri batzuk (zur-hesi bidezko gotorlekua, fosoa, trintxerak, kanoiak eta abar) eta begiratuta garai berdinean beste leku batzuetan egindako gotorlekuak gutxi gora beherako itxura izan zuela ondorioozta daiteke. Floridan dagoen San Carlos de Austria gotorlekuak ezaugarri antzekoak dituen eraikina da. Izan ere, kolono espainiarrek eginikoa da 1689. urtean (San Carlosekoa baino 23 urteren ostean) tamaina eta egitura sistema berdinarekin (egur-hesien bidez eginikoa).
Floridako gotorlekuaren eta San Carloseko orubearen arteko nahasketak eginez ortu da gutxi gora beherako itxura bat ateratzea (axonometrian)



Proiektu3ak hiru erabilera nagusi ditu: Lurralde Mailako Garapen Agentzia, Interpretazio zentroa eta lanbide heziketa eskola. Hauen arteko ordutegi eta funtzionamendua erabat desberdinak direnez batak bestearekiko erabat independiente funtziona dezan aurreikusi da.





Elementu historikoei garrantzia ematea da beste alde batetik proiektu honen xedea. 1666 urtean kolono espainiarrek gotorlekua eraiki ahal izateko karga-horma perimetral bat eta harrizko eraikuntza bat egin zuten. Hauek dira gaur egun arte iraun duten elementu bakarrak, gainontzekoak eraitsi, eraberritu edo galdu egin direlako. Hori dela eta merezi duten garrantzia berreskuratuko dute proiektu honetan.





Proiektua erabat baldintzatzen duen kontzeptu bat irisgarritasuna da. Igogailuen erabilera zaila denez, arrapalen bidez bermatzea erabaki da eta honek hartuko dituen dimentsioengatik proiektuaren hasieratik kontuan hartu da.
Arrapala %8-ko maldarekin proiektatu da eta lau maila desberdin lotzeko balioko du: Plazaren kota (+0.00m), behe solairua (+2.40m), bigarren solairua (+5.00m) eta begiratokia (+7.40m).
Arrapala horma historikoekiko paraleloan kokatuko da eta guztira 104.5 metro luze izango ditu. Irisgarritasuna bermatzeko 10 metro baino gutxiagoro 2m luzen duen eremu horizontala ezarri da.
Honen amaieran dagoen begiratokia bera beste arrapala bat da eta bertatik jaisteko aukera ere egongo da, ibilbideari amaiera emanaz.



Gotorlekuaren orientazioa eta kokapenak erabat erantzuten dio inguruari eta defentsa estrategiei. Izkina bakoitzak inguru gertu konkretu bati begiratzeko kokatua dago, irudian ikusten den bezala. Proiektuak zentzu horri berreskuratuko du, bolumetrikoki horrela erakutsiko duelako. Bestaldetik, hauek (bastioiak) dira gotorlekuaren elementu garrantzitsuenetakoak, babestuko baitzen. Hori dela eta elementu esanguratsuenak (liburutegia, begiratokia eta taberna) dira bertan kokatuko direnak.